



Néstor Basterretxearen ondare dokumentalaren hurbilketa bat



Eka. 20 - Eka. 21 2024

Kod. K03-24

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 20 - Eka. 21 2024

Kokalekua

Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco, Artium Museoa (Vitoria-Gasteiz)

Hizkuntzak

Gaztelera Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Dokumentu-iturriak hautatu, prozesatu, zaindu eta zabaltzeko prozesua erabakigarria da artelanak beren esparru historiko, sozial eta estetikoan kokatzeko, bai eta artatze-lanaren funtsezko elementu bat ere. Uda Ikastaro honetan, Néstor Basterretxearen ondarea ezagutuko dugu, hura gordetzen duten hainbat erakunderen eskutik, eta dokumentazio hori eskuratzeko tresnak eta aukerak erakutsiko ditugu.

Ikastaroan parte hartzen duten informazioaren profesionalek eta pertsonak esperientziak trukatzeko, kudeaketa-estrategia berriei buruz hausnartzeko, eztabaida sortzeko eta ikerketa bultzatzeko eta herritarren premiekin bat datozen kalitatezko produktuak eta zerbitzuak eskaintzen lagunduko duten lankidetzak sustatzeko esparru bat izan nahi du programa honek.

Helburuak

Néstor Basterretxearen ibilbide pertsonalaren eta profesionalaren ulermenean sakontzea: arte garaikideari egin dizkion ekarpenak aztertzea eta testuinguruan kokatzea, eta haren bilakaera artistikoa eta kulturaren izan duen eragina aztertzea.

- Gordailu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ondare Bildumen Zentroaren; Euskadiko Liburutegi Digitalaren; Jorge Oteiza Fundazio Museoaren; Eresbil, Musikaren Euskal Artxiboaren; Lazkaoko Beneritarren Fundazioaren; Euskadiko Filmategiaren; Sancho el Sabio Fundazioaren; Espainiako Liburutegi Nazionalaren eta Artium Museoaren funts bibliografiko eta dokumentalak aztertzea, besteak beste, Basterretxeari buruz eskuragarri dauden baliabideen aberastasuna eta aniztasuna ulertzeko.

Artxiboetako eta dokumentazio-zentroetako profesionalen arteko elkarrizketarako eta lankidetzarako gune bat ezartzea, ezagutzak, esperientziak, jardunbide egokiak eta etorkizunean izan daitezkeen lankidetzak trukatzeko erraztuz.

Funts bibliografikoak eta dokumentalak antolatzeke, deskribatzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko jardunbide egokienetan gaitasunak garatzea, eta, bereziki, artxibo artistikoen berezitasunak azpimarratzea.

Antolakuntza



Programa

2024-06-20

09:00 - 09:15	Registro / Erregistroa
09:15 - 09:30	Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena: Beatriz Herráez Diéguez Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco, Artium Museoa - Directora
09:30 - 10:30	“Patrimonio documental sobre Néstor Basterretxea en el Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco, Artium Museoa” Elena Roseras Carcedo Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco, Artium Museoa - Responsable de Biblioteca y Documentación
10:30 - 11:30	“El patrimonio artístico de Néstor Basterretxea en GORDAILUA, Centro de Colecciones Patrimoniales de Gipuzkoa “ Silvia Rodríguez Perez Servicio de Gordailua y Museos - Responsable de Documentación e Inventario
11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 13:00	“El legado de Néstor Basterretxea en Euskariana” Sindi Barbeito Meizoso Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco - Responsable del Servicio Biblioteca Digital de Euskadi
13:00 - 14:00	“Los documentos que llevan tu nombre y me dejaste...: la gestión de fondos personales en la BNE” María José Rucio Zamorano Biblioteca Nacional de España - Jefa de Servicio de Manuscritos e Incunables (Zoom bidez parte hartuko du)
14:00 - 14:15	Sintesia
17:00 - 18:00	Visita guiada a la exposición que tiene como núcleo de trabajo el fondo documental de Néstor Basterretxea

2024-06-21

09:00 - 10:00	“Nestor Basterretxearen lanak mugimendu politiko, sozial eta kulturaletarako: Lazkaoko Beneditarren Fundazioak gordetzen duena” Miren Josebe Barandiaran Contreras Lazkaoko Beneditarren Fundazioa - Lazkaoko Beneditarren Fundazioko arduraduna
10:00 - 11:00	“Basterretxea eta zinema, Ama Lurretik Euskadiko Filmategira “ Ion Lopez Barrena Euskadiko Filmategia - Euskadiko Filmategiko zuzendari-kontserbatzailea
11:00 - 11:30	Atsedena

11:30 - 12:30	<p>“Nestor Basterretxea. Los colores del sonido, una aproximación a su faceta musical”</p> <p>Pedro Leñena Mendizabal Eresbil, Archivo vasco de la música - Director</p> <hr/>
12:30 - 13:30	<p>“La difusión del arte desde un fondo documental: Basterretxea en la Fundación Sancho el Sabio”</p> <p>Jesus Zubiaga Valdivieso Fundación Sancho el Sabio Fundazioa - Director</p> <hr/>
13:30 - 14:30	<p>“Néstor Basterretxea y Jorge Oteiza en el archivo del Museo Oteiza: historia de una colaboración y una amistad”</p> <p>Borja González Riera Fundación Museo Jorge Oteiza - Responsable del Centro de Estudios del Museo Oteiza</p> <hr/>
14:30 - 14:45	<p>Sintesia</p> <hr/>
14:45 - 15:00	<p>Itxiera</p> <p>Elena Roseras Carcedo Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco, Artium Museoa - Responsable de Biblioteca y Documentación</p> <hr/>

Zuzendaritza



Elena Roseras Carcedo

Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco, Artium Museoa

Elena Roseras Carcedo Geografia eta Historiako lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatean, Dokumentazio lizentziaduna UOCen (Universitat Oberta de Catalunya), EHUko Bibliotekonomian masterra eta UOCek emandako Informazioaren eta Ezagutzaren Gizarteko masterra. Sancho el Sabio Fundazioa eta Liburu eta Liburutegi Zerbitzua bezalako erakundeetan lan egin du Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzan. 2001az geroztik, Artium Museoa Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoko liburutegiaren eta dokumentazio-zentroaren arduraduna da. Artium Museoko taldekide gisa, Arte Garaikideko Dokumentazio Zentroen Topaketak antolatu eta koordinatzen ditu 2002. urtetik. Hainbat erakusketa bibliografiko komisariatu ditu eta liburuarekin eta irakurketarekin lotutako programak koordinatu ditu. Halaber, museoko bildumako eta erakusketa-programetako artisten artxiboak eta dokumentu funtsak kudeatzen eta koordinatzen ditu. Hainbat artikulu idatzi ditu argitalpen espezializatuetan, eta nazioarteko hainbat biltzarretan parte hartu du hizlari gisa.

Irakasleak



Miren Josebe Barandiaran Contreras

Lazkaoko Beneditarren Fundazioa

Miren Barandiaran Contreras (Beasain, 1974) 1997an lizentziatu zen Geografia eta Historian Deustuko Unibertsitatean (Donostiako egoitza). Kultur Baliabideen Kudeaketa eta Kultura Ondarearen, Historiaren eta Identitatearen Azterketa Aurreratuak bezalako graduondokoak egitearekin batera, hamar urtez ikerketa historikoan lan egin zuen, hainbat liburu eta artikulua idatzi zituen, gehienak Euskal Herriko historia politiko garaikideari buruzkoak, eta erakusketen antolaketan ere parte hartu zuen. Bere lanbidetik gehien gustatzen zitzaiona liburutegietara eta artxiboetara joatea zen, eta horrek beste aldera salto egitera eraman zuen. Orduan hasi zen artxibogintzan, bibliotekonomian eta informazioaren kudeaketan trebatzen, eta 2007an Lazkaoko Beneditarren Liburutegi eta Artxiboan sartu zen, bere bildumak antolatu eta deskribatuz. Euskadiko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kide ere izan zen, eta diruzain bi legealditan. 2011tik Lazkaoko Beneditarren Fundazioko arduraduna da eta patronatuko idazkaria ere bada.



Sindi Barbeito Meizoso

Eusko Jaurlaritza, Euskadiko Liburutegi Digitala Zerbitzuaren arduraduna

Filosofia eta Letretan lizentziatua, Geografia eta Historia espezialitatea. Artxibistikako masterra, Euskal Herriko Unibertsitateko graduondoko berezko titulua. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Erakunde Administrazioako Artxibozain, Liburuzain eta Dokumentalisten Goi Mailako Teknikarien Kidegoko funtzionarioa. Gaur egun, Euskadiko Liburutegi Digitalaren Zerbitzuaren arduraduna da.



Borja González Riera

Artearen Historian lizentziatu zen Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean, eta Kultura Ministerioko

Artxiboen Informazio eta Dokumentazio Zentroan hasi zuen bere karrera dokumentalista. El País egunkariko dokumentazio-zentroko Ekonomia eta Lan arloko arduraduna, Ezagutzaren Gestioko saila zuzentzen hasi zen Madrilén dagoen The Boston Consulting Group (BCG) aholkularitza-enpresa multinazionalaren bulegoan. Dokumentazio eta Informazio Zientifikoaren Espainiako Elkarteko (SEDIC) zuzendaritza batzordeko kide izan zen. Elkarre horretan, dokumentazio ikastaroak eman zituen komunikabideetan. Ezagutzaren Gestioko irakasle aholkularia izan zen Unibersitat Oberta de Catalunyan (UOC) eta San Pablo CEU fundazioan. 2003an, Nafarroara joan zen Oteiza Museoko Ikasketa Zentroa martxan jartzeko. Gaur egun, zentro horren arduraduna da. 2013az geroztik, artearen historiari buruzko ikastaroak ematen ditu Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren (UNED) hainbat egoitzatan eta beste kultura-zentro batzuetan.



Pedro Leñena Mendizabal

Eresbil - Musikaren Euskal Artxiboa, Zuzendaria

Donostian jaio zen, 1965ean. Geografia eta Historiako lizentziaduna da, Musikologiako espezialitatekoa, Ovidoko Unibertsitatean. 1991n, ERESBILeko Euskal Musikaren Artxiboko (Erreterria - Gipuzkoa) teknikari dokumentalista postua eskuratu zuen, eta, horri esker, musikologo gisa garatu ditu bere bi arloak, eta modu profesionalean lantzea dokumentuen tratamendua. Bere ikerketa-lanaren artean, Musiker, Kantuz eta Dantzariak aldizkarietan, besteak beste, musikaren inguruko artikulak argitaratzea azpimarratu behar da. Artxiboei dagokienez, azpimarratzekoa da liburutegi eta dokumentazio arloan ikastaro espezializatuak egiteko eta antolatzeko inplikazioa izan duela, eta lankidetzak aktiboak izan duela AEDOM (Musika Dokumentazioaren Espainiako Elkarte), IAML (Musika Liburutegien Nazioarteko Elkarte) eta ALDEE (Euskadiko Liburuzain eta Artxibozainen Elkarte) bezalako elkarte profesionaletan. 2020. urtean zuzendari kargua hartu zuen Eresbilen. Horri esker, musika ondarea kudeatu, zaindu eta zabaltzeko lanetan sakontzeko aukera izan du.



Ion Lopez Barrena

Donostian 1971n jaioa. Ikasketaz kazetaria, hainbat komunikabidetan ibilitakoa, prentsa idatzian (Zabalik, Irutxulo, Irutxuloko Hitza), telebistan (ETB, Localia), Irratian, (Cadena SER, Egin irratia). Euskadiko Filmategia elkartearen bazkide ohia eta 2009tik Euskadiko Filmategiko zuzendari-kontserbatzailea. Euskal zinemaren inguruko hainbat hitzaldi eta aurkezpen egindakoa. Materiale zinematografiko totokimiko eta digitalen kontserbazioan aditua, Euskadiko Filmategiaren artxiboak Donostiako Tabakalera eraikinian duen artxiboaren arduraduna da 2009. urtetik.



Silvia Rodriguez Perez

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Deustuko Unibertsitateko Geografia eta Historiako lizentziaduna eta UOCen Dokumentazioko lizentziaduna da. Horrez gain, Deustuko Unibertsitateko “Kultur Baliabideen Kudeaketa” graduondoko titulua, Jaume I Unibertsitateko “Dokumentazioko Antolaketa eta Kudeaketako espezialista” titulua, Museoetako Dokumentazio Masterra, “UDIMA” ikastaroa eta “Museoetako Dokumentazio Masterra” tituluak eskuratu izan ditu formakuntza osagarri gizaz. Bere ibilbide profesionalaren zati handi bat Euskal Herriko Liburutegi Publikoen eremuan garatu du. Gaur egun, Gordailun egiten du lan, Ondare Bildumen eta Ikastetxeko Inbentarioaren dokumentazioaren arduradun gisa eta Dokumentazio Zentroa sortzeko proiektua abian jartzeko. Halaber, hainbat proiektu dokumentaletan parte hartzen du, hala nola Artium Museoak antolatutako Arte Garaikideko Dokumentazio Topaketetan.



Elena Roseras Carcedo

Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco, Artium Museoa

Elena Roseras Carcedo Geografia eta Historiako lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatean, Dokumentazio lizentziaduna UOCen (Universitat Oberta de Catalunya), EHUko Bibliotekonomian masterra eta UOCek emandako Informazioaren eta Ezagutzaren Gizarteko masterra. Sancho el Sabio Fundazioa eta Liburu eta Liburutegi Zerbitzua bezalako erakundeetan lan egin du Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzan. 2001az geroztik, Artium Museoa Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoko liburutegiaren eta dokumentazio-zentroaren arduraduna da. Artium Museoko taldekide gisa, Arte Garaikideko Dokumentazio Zentroen Topaketak antolatu eta koordinatzen ditu 2002. urtetik. Hainbat erakusketa bibliografiko komisariatu ditu eta liburuarekin eta irakurketarekin lotutako programak koordinatu ditu. Halaber, museoko bildumako eta erakusketa-programetako artisten artxiboak eta dokumentu funtsak kudeatzen eta koordinatzen ditu. Hainbat artikulu idatzi ditu argitalpen espezializatuetan, eta nazioarteko hainbat biltzarretan parte hartu du hizlari gisa.



María José Rucio Zamorano

Filologia Klasikoan lizentziatua. Liburutegietako Teknikarien Kidegoko karrerako funtzionarioa 1999. urteaz geroztik. Espainiako Liburutegi Nazionalako Eskuizkribu, Inkunable eta Arraroen Saileko artxibo pertsonalen bildumaren arduraduna 2002. urteaz geroztik eta 2013. Urtetik aurrera liburutegi bereko Eskuizkribu eta Inkunableen Zerbitzuko burua. 2012ko otsailean, Espainiako Elizako Liburuzainen Elkarteak (ABIE) deitu eta Ignacio Larramendi Fundazioak babesten duen Liburuzainen Praktika Onen Ignacio Larramendi saria jaso zuen, Mesedeetako ordenaren ondare bibliografikoa antolatzeko eta katalogatzeko proiektuan egindako aholkularitza-lanagatik. Bere ikerketa-lanak bi esparru horietan oinarritzen dira. Alde batetik, inprimaki zaharrekin lotuta, hainbat argitalpenetan parte hartu du, besteak beste, BNEn gordetzen den Orduen Liburu inkunablea aztertzen eta Gaztelako probintziako eta Aragoiko probintziako Mesedeetako Ordenaren inprimaki zaharren bildumarekin zerikusia duten argitalpenetan; bestetik, «Liburutegi Nazionalako bilduma bereziak» sailean parte hartu du, espainiar kulturako hainbat egileren artxibo pertsonalen inbentarioak argitalpenean —Juan Antonio de Zunzunegui, Corpus Barga, Juan Luis Estelrich eta Concha Lagos poeta



Jesus Zubiaga Valdivieso

FUNDACION SANCHO EL SABIO FUNDAZIOA, DIRECTOR

Sancho el Sabio Fundazioaren (Vitoria-Gasteiz) zuzendaria, euskal kulturari buruzko dokumentazio-zentroa. 1964an sortu zen, eta gaur egun Fundación Vital Fundazioari lotuta dago. Erabiltzaileen azterketari, ondare bibliografikoko funtsen digitalizazioari, dokumentazio grafikoari eta artxibo historikoari buruzko jardunaldi profesionaletan txostenak egin ditu, bai eta funts dokumentalak zabaltzeko proiektuak ere.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-05-31 ARTE	2024-06-20 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	59,00 EUR
Orokorra	-	84,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	71,00 EUR
Matrikula exentzia	-	59,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	-	71,00 EUR
Donostia Kultura	-	71,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2024-05-31 ARTE	2024-06-20 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	59,00 EUR
Orokorra	-	84,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	71,00 EUR
Matrikula exentzia	-	59,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	-	71,00 EUR
Donostia Kultura	-	71,00 EUR

Kokalekua

Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco, Artium Museoa (Vitoria-Gasteiz)

Francia Kalea, 24, 01002 Gasteiz, Araba

Araba